

**1/2021 ZIRKULARRA, APIRILAREN 20KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEARENA.**

HARTZAILEAK: SAILEN ZERBITZU ZUZENDARITZAK EDO KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARITZAK, ERAKUNDE AUTONOMOEN ZUZENDARITZAK, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN ZUZENDARITZA, HERRITARRAK HARTZEKO ETA ZERBITZU DIGITALETAKO ZUZENDARITZA, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN (IKT) ARLOKO ZERBITZU ESKUDUNAK.

XEDEA: APLIKAZIO INFORMATIKO BERRIAK GARATZEKO KONTRATUAK.

2021eko martxoaren 31n, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean. Artikulu bakarra du Dekretuak, eta haren bitartez onartzen da sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jardun eta funtzionatzeko erregelamendua.

Azken xedapenetako bosgarrenean ezarritakoarekin bat etorriz, Errege Dekretu hori 2021eko apirilaren 2an sartu zen indarrean.

Erregelamenduaren 1.1. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz, «erregelamenduaren helburua da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea garatzea, sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteari eta funtzionatzeari dagokienez».

Erregelamenduko 1.2 artikulua dakarrenarekin bat etorriz, «Aplikazio-eremu subjektiboa urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2. artikuluan eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2. artikuluan ezarritakoa da».

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2. artikulua honako hau ezartzen du:

«1. Lege hau sektore publikoari aplikatzen zaio. Sektore horretan sartzen dira honako hauek:

- a) Estatuaren Administrazio Orokorra.
- b) Autonomia-erkidegoen administrazioak.
- c) Toki-administrazioa osatzen duten entitateak.
- d) Sektore publiko instituzionala.

2. Hauek sartzen dira sektore publiko instituzionalean:

- a) Administrazio publikoei loturik edo haien mendean dagoen zeinahi organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitate.
- b) Administrazio publikoei loturik edo haien mende dauden zuzenbide pribatuko entitateak, betiere administrazio-ahalak baliatzen dituztenean. Lege honek haiei buruz espezifikoki xedatzen duenaren mende egongo dira.
- c) Unibertsitate publikoak, zeinek beren araudi espezifikoari jarraituko baitiote eta, modu osagarrian, lege honetan xedatutakoari.

3. Administrazio Publiko izango dira Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegoetako Administrazioak, Toki Administrazioa osatzen duten entitateak eta 2. apartatuko a) letran aurreikusitako erakunde publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak.

4. Zuzenbide publikoko korporazioek beren araudi espezifikoari jarraituko diote legez esleitu zaizkien edo administrazio publikoren batek eskuordetu dizkien eginkizun publikoak betetzean, eta, modu osagarrian, lege honi».

Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2. artikulua ere bat dator arestian transkribatutako 39/2015 Legearen 2. artikulua edukiarekin, baina ez du barnean hartzen 4. apartatua.

Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jardun eta funtzionatzeko erregelamenduaren 64. artikulua (aurrerantzean, SPBEJFE) berariaz garatzen ditu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 157. eta 158. artikuluetan jasotzen diren aurreikuspenak. Martxoaren 30eko 203/2021

Errege Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoarekin bat etorrita, 64. artikuluko hori oinarritzkoa da.

157. eta 158. artikuluko horiek arautzen duten gaia Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek aztertu zuen, azaroaren 6ko 1/2017 Zirkularraren bidez, Batzorde honen Idazkaritza Nagusian aipatu administrazioaren edo beste batzuen aplikazio informatikoak erabiltzeko eta ustiatzeko lizentzien lagapenen izaerari eta prozedurari buruz jasotako kontsulten aurrean.

Zirkular horretan adierazten zenez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak (azaroaren 8ko 9/2017 Legea; aurrerantzean, SPKL) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora, eta honako hau dio Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 16. artikuluko 3. apartatuan: «*Nolanahi ere, ondorengo kontratu hauek hornidura-kontratutzat joko dira:*

[...]

b) Objektutzat telekomunikazio-ekipamenduak edo -sistemak edo informazioa tratatzeko ekipamendu eta sistemak eta horien dispositibo eta programak eskuratu eta errentan hartzea dutenak, baita programak erabiltzeko eskubidea lagatzekoak ere, neurria garatutako ordenagailu-programak eskuratzeko kontratuak izan ezik, horiek zerbitzu-kontratutzat joko dira eta».

Hala, bada, adierazten zen programa informatikoen kontratazioa hornikuntza-kontratu baten bidez antolatu beharko dela, neurria eginiko programak izan ezean, zeinek zerbitzuak kontratatzeko legearen prozedura-urratsei eta mota guztietako urratsei jarraitu beharko baitiete.

Hala ere, gaineratzen zuen edozein administrazioaren jabetzako sistemak eta aplikazioak lagatzeko, eskuratzeko edo erabiltzeko denean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea jo behar dela. Legeak honako hau ezartzen du:

«157. artikulua. Administrazioaren jabetzakoak diren sistemak eta aplikazioak berrerabiltzea.

1. Administrazioek hala eskatzen duen administrazioaren esku jarriko dituzte beren zerbitzuek garatu dituzten aplikazioak edo kontratatu direnak, baldin eta jabetza

intelektualeko eskubideak haien titulartasunpean badaude, non eta arauben batek ez duen aplikazio horiei lotutako informazioa bereziki babesten. Administrazio lagatzaileek eta lagapen-hartzaileek lagatutako aplikazioen eskurapen- edo fabrikazio-kostua jasanaraztea erabaki ahalko dute.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren aplikazioak iturri irekiko aplikaziotzat jo ahalko dira, baldin eta horrela administrazio publikoaren funtzionamenduan gardentasun handiagoa lortzen bada edo herritarrak informazio-gizartean sartzea sustatzen bada.

3. Administrazio publikoek aplikazio bat eskuratu, garatu edo bizitza-ziklo osoan mantendu aurretik, hori guztia baliabide propioekin nahiz egokiak diren zerbitzuak kontratatuz egiten dela ere, Estatuaren Administrazio Orokorren mendeko aplikazioen direktorio orokorrean kontsultatu beharko dute halakoak berrerabiltzeko moduko konponbideak dauden, bete nahi diren beharrian, hobekuntza edo eguneraketak guztiz edo zati batean betetzeko, betiere elkarreragingarritasun- eta segurtasun-arloko betekizun teknologikoek horretarako aukera ematen badute.

Direktorio horretan agertuko dira Estatuaren Administrazio Orokorrean dauden aplikazio eskuragarriak nahiz gainerako administrazioetako aplikazioen direktorio integratuetan eskuragarri daudenak.

Guztiz edo zati batean berrerabiltzeko eskuragarri dagoen konponbide bat badago, administrazio publikoek hori erabili beharko dute nahitaez, salbu eta hori ez berrerabiltzeko erabakia justifikatuta badago efizientziari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7. artikulua araber.

158. artikulua. Administrazioen arteko teknologia-transferentzia.

1. Administrazio publikoek aplikazioen direktorio eguneratuak edukiko dituzte, libreki berrerabiltzeko, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean xedatutakoaren arabera. Direktorio horiek elkarreragingarriak izan beharko dute Estatuaren Administrazio Orokorren direktorio orokorrarekin, bateragarritasun informatikoa eta konexioa bermatzeko.

2. Estatuaren Administrazio Orokorrek aplikazioen direktorio orokor bat izango du, aplikazio horiek berriro erabili ahal izateko; era berean, aplikazioak edozeinek berriz erabiltzeko laguntza eskainiko du eta aplikazio, formatu eta estandar komunen garapena bultzatuko du, elkarreragingarritasunaren eta segurtasunaren eskema nazionalen esparruan».

SPBEJFEren 64. artikulua 40/2015 Legearen aipatu artikulua garatzen ditu, eta administrazio publikoen jabetzako sistema eta aplikazioen berrerabilera eta haien arteko transferentzia teknologikoa arautzen ditu, honela:

«1. Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 157. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, administrazio publikoek hala eskatzen duen administrazioaren esku jarriko dituzte beren zerbitzuek garatu dituzten aplikazioak edo kontratatu direnak, baldin eta jabetza intelektualeko eskubideak haien titulartasunpean badaude, non eta arauen batek ez duen aplikazio horiei lotutako informazioa bereziki babesten. Administrazio lagatzaileek eta lagapen-hartzaileek lagatako aplikazioen eskurapen- edo fabrikazio-kostua jasanaraztea erabaki ahalko dute.

2. Horretarako, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 158. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, administrazio publikoek aplikazioen direktorio eguneratuak edukiko dituzte, libreki berrerabiltzeko, produktu edo zerbitzu erara, Elkarrengarritasunerako Eskema Nazionalan xedatuta dagoenaren arabera.

Aurkibide horiek elkarrengarriak izan beharko dute, libreki berrerabiltzeko Estatuaren Administrazio Orokorraren direktorio orokorrarekin bateragarritasun informatikoa eta konexioa bermatzeko, urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuaren 17. artikuluan aurreikusi bezala.

3. Administrazio publikoen sistema eta aplikazioen lizentziamendu-baldintzak eta aplikazio berrerabilgarrien direktorioen erabilera eta funtzionamendua urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan aurreikusitakora egokitu beharko dira.

4. Administrazio publikoek aplikazio berrerabilgarriak eraikitzen saiatuko dira, dela produktu modura dela zerbitzu modura, partekatzeko, berrerabiltzeko eta lankidetzan jarduteko jarduketei bide emateko, efizientzia hobea izateko eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 157. artikuluari jarraikiz jasotako eskabideei eraginkortasunez erantzuteko.

5. Administrazio publikoek aplikazio bat eskuratu, garatu edo bizitza-ziklo osoan mantendu aurretik, baliabide propioekin nahiz egokiak diren zerbitzuak kontratatuz egiten dela ere, Estatuaren Administrazio Orokorraren aplikazioen direktorio orokorrean kontsultatu beharko dute berrerabilera librerako, halakoak berrerabiltzeko moduko konponbideak dauden, bete nahi diren beharrian, hobekuntza edo eguneraketak guztiz edo zati batean betetzeko, betiere

elkarreragingarritasun- eta segurtasun-arloko betekizun teknologikoek horretarako aukera ematen badute.

Direktorio orokorrean eginiko kontsulta horren emaitzaren inguruko ondorioak kontratazio-espeditetan sartuko dira, eta, hala badagokio, erantzun nahi diren behar, hobekuntza edo eguneratzeak osorik edo zati batean bete ditzaketen berrerabiltzeko konponbide eskuragarriak ez dagoela islatuko dute.

Guztiz edo zati batean berrerabiltzeko moduko konponbide bat badago, hura ez berrerabiltzeko justifikazioa efizientzia terminoetan egingo da, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera».

Haxe dio SPBEJFEren hamargarren xedapen gehigarriak, «1. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen lehen xedapen gehigarriari jarraikiz, gaia dela-eta bereziak diren legetan araututako administrazio-prozedurek, lege honetan aurreikusitako izapideetako bat eskatzen ez badute edo izapide gehigarriak edo bestelakoak arautzen badituzte, lege berezi horietan xedatutakoari jarraituko diote». Kontratazio publikoaren arloan aplikatu behar da hori, SPKLk arautzen dituen administrazio-publikoak daudelako.

Haren bigarren xedapen gehigarriaren bidez, SPBEJFE onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreraginkortasuneko Eskema Nazionala arautu duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuaren 11.3.a), 16. eta 17. artikulua aldatzen ditu, besteak beste. 203/2021 Errege Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, azken xedapenetako bigarren hori oinarritzeko da. Artikulu horiek honela idatzita geratuko dira:

«11. artikulua. Estandar aplikagarriak.

[...]

3. Estandarrak aukeratzeko, oro har, eta estandarren katalogoa ezartzeko, zehazki, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Kontratazio publikoan IKTen espezifikazio teknikoaren erabilera eta Europako normalizazioari buruzko 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1025/2012 Erregelamenduan ezarritako arauaren eta espezifikazio teknikoaren definizioak».

«16. artikulua. Lizentziamendu-baldintza aplikagarriak.

1. Aplikazio informatikoen, lotutako dokumentazioaren eta beste edozein informazio-xederen lizentziamendu-baldintzak, baldin eta haien jabetza intelektualaren eskubideen titulartasuna administrazio publiko batena bada eta beste administrazio baten edo herritarren esku jartzeko aukera ematen badu, honako alderdi hauek izango dituzte kontuan:

a) Xedea baliabide publikoen aprobetxamendua eta berrerabilera da.

b) Erabateko babesa, hirugarren batek ez dezan erabat edo zati batean bereganatu.

c) Lagatzailea erantzukizunaz salbuestea, lagapen-hartzaileak oker erabili duenean.

d) Lagatzailea laguntza teknikora edo mantentze-lanetara behartuta ez egotea.

e) Lagatzaileak inolako erantzukizunik ez izatea lagapen-hartzailearekiko, baldin eta aplikazioak akatsak baditu edo behar bezala ez badabil.

f) Lizentziamendua, besterik adierazi ezean, kontraprestaziorik gabe eta inolako hitzarmenik ezarri beharrik gabe egingo da. Kasu hauetan bakarrik erabaki ahal izango da lagatako aplikazioak eskuratzeko edo garatzeko kostuaren zati bat jasanaraztea: baldin eta ordainketa horrek zuzenean laguntzen badu lagatako aktiboaren funtzionaltasunak areagotzen; erakunde lagapen-hartzailean aplikazioa erabiltzeko egokitzapen zehatzak egiten badira, edo erakunde lagapen-hartzailean aplikazioa berrerabiltzeko laguntza- edo euskarri-zerbitzuak ematen badira.

2. Administrazio publikoetan aplikazio informatikoetarako, lotutako dokumentaziorako eta iturburu ireki gisa aitortutako beste edozein informazio-xederako erabiliko diren programek, datuek edo bestelako informazioek lizentzia jakin batzuk erabili beharko dituzte honako eskakizun hauek betetzen dituztela ziurtatzeko:

a) Edozein helburutarako erabili ahal dira.

b) Aplikazioen iturburu-kodea zein den jakin daiteke.

c) Aplikazioak aldatu edo hobetu ahalko dira.

d) Beste erabiltzaile batzuei birbanatu ahal zaizkie, aldaketekin edo aldaketarik gabe, betiere lanak lau berme horiei eusten badie.

3. Xede horretarako, Europar Batasuneko lizentzia publikoa aplikatzen saiatuko da; hala ere, badaude 1. eta 2. apartatuetan jasotzen diren eskubideak bermatzen dituzten beste lizentzia batzuk.

4. Lizentziamendu-baldintzen ezarpenari bide emateko, administrazio publikoek aplikazio informatiko berriaren garapena helburu duten kontratuen klausula teknikoen agirietan honako alderdi hauek jasoko dituzte:

a) Administrazio kontratatzaileak aplikazioen jabetza intelektualaren inguruko eskubide guztiak eta kontratu honen helburu gisa garatzen den beste edozein jakingai eskuratzea.

b) Aurretik zeuden aktiboak berrerabiltzeko kasuan, administrazio kontratatzaileak beste administrazio publiko batzuek gerora berrerabiltzeko eskaini ahalko duen produktua jasotzea. Gainera, iturburu irekiko produktuetatik abiatuz gero, iturburu irekikotzat aitortu ahal izatea garatutako etorkizuneko aplikazioa».

«17. artikulua. Aplikazio berrerabilgarrien direktorioak.

1. Estatuko Administrazio Orokorrak aplikazioen direktorio orokorra mantenduko du, libreki berrerabiltzeko, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 158. artikuluari jarraikiz, Teknologiaren Transferentzia Zentroaren bidez. Direktorio hori beste administrazio publiko batzuek erabili ahalko dute. Direktorio propioa izanez gero, direktorio horretan dauden aplikazioak Teknologiaren Transferentzia Zentroaren bidez ere kontsulta daitezkeela bermatu beharko du.

2. Administrazio publikoek aplikazioen direktorioak konektatuko dituzte, elkarren artean libreki berrerabiltzeko, eta Europar Batasunaren eremuko tresna baliokideekin.

3. Administrazio publikoek aplikazio berrerabilgarriak argitaratuko dituzte, produktu modura edo zerbitzu modura, libreki berrerabiltzeko aplikazioen direktorioetan, eta, behintzat, honako eduki hau jasoko dute:

a) Amaitutako aplikazioen iturburu-kodea, produktu moduan berrerabilgarriak badira eta iturburu irekiko gisa aitortu badira.

b) Lotutako dokumentazioa.

c) Artxibo guztien lizentziamendu-baldintzak, produktu modura berrerabilgarriak badira, edo eskainitako zerbitzu-maila, zerbitzu modura berrerabilgarriak badira.

d) Haien berrerabilgarritasunarekin lotutako kostuak, halakorik badago.

4. Administrazioak saiatuko dira jatorrizko aplikazioan sartzen aplikazio berrerabilgarrien direktorio batetik lortu den edozein aplikazioren gainean egindako aldaketak edo egokitzapenak».

Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreraginkortasuneko Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuaren 3.1 artikulua ezartzen duenez, haren aplikazio-eremua Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 2. artikuluan ezarritakoa izango da, eta artikulua horrek honako hau adierazten du:

«2. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Honako hauei aplikatuko zaie Lege hau, betiere, azken xedapenetako lehenak adierazten duena kontuan harturik:

a) Administrazio publikoei, alegia, Estatuko administrazio orokorrari, autonomia-erkidegoetako administrazioei, toki-administrazioa osatzen duten erakundeei eta horien guztien mendeko edo horiei lotutako zuzenbide publikoko erakundeei ere bai.

b) Herritarrei, administrazio publikoiekin dituzten harremanetan.

c) Administrazio publikoen arteko harremanei.

2. Lege hau ez zaie aplikatuko administrazio publikoei, haien jarduketak zuzenbide pribatuaren mende daudenean».

Hala, bada, administrazio publikoek aplikazioen direktorio eguneratuak edukiko dituzte, libreki berrerabiltzeko, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalan xedatutakoaren arabera. Direktorio horiek elkarreragingarriak izan beharko dute Estatuaren Administrazio Orokorraren direktorio orokorrarekin, bateragarritasun informatikoa eta konexioa bermatzeko.

Direktorio orokor hori TEKNOLOGIAREN TRANSFERENTZIA ZENTROAREN KONPONBIDEEN DIREKTORIOA da, eta honako helbide honetan dago:

https://administracionelectronica.gob.es/pae/Home/pae_SolucionesCTT.html#.WfxUTo_Wzcs

Aplikazio informatiko berri baten beharrik egonez gero, aplikazio bat eskuratu, garatu edo bizitza-ziklo osoan mantendu aurretik, hori guztia baliabide propioekin nahiz egokiak diren zerbitzuak kontratatuz egiten dela ere, TEKNOLOGIAREN TRANSFERENTZIA ZENTROAREN KONPONBIDEEN DIREKTORIOAn kontsultatu beharko dute halakoak berrerabiltzeko moduko konponbideak dauden, bete nahi diren beharrian, hobekuntza edo eguneraketak guztiz edo zati batean betetzeko, betiere elkarreragingarritasun- eta segurtasun-arloko betekizun teknologikoek horretarako aukera ematen badute.

Direktorio orokorrean eginiko kontsulta horren emaitzaren inguruko ondorioak kontratazio-espeditentean sartuko dira, eta, hala badagokio, erantzun nahi diren behar, hobekuntza edo eguneratzeak osorik edo zati batean bete ditzaketen berrerabiltzeko konponbide eskuragarri ez dagoela islatuko dute.

Guztiz edo zati batean berrerabiltzeko konponbide bat eskuragarri badago, ez berrerabiltzeko justifikazio bakarra efizientzia izango da, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratazio-espeditentean, lizentziamendu-baldintzen ezarpenari bide emateko, Administrazio Publikoak edo loturiko zuzenbide publikoko erakundeak edo haren mendekoak honako alderdi hauek jasoko ditu aplikazio informatiko berriak garatzeko kontratuen klausula teknikoen agirietan:

- a) Administrazio publikoak edo erakunde kontratatzaileak aplikazioen jabetza intelektualaren inguruko eskubide guztiak eta kontratu honen helburu gisa garatzen den beste edozein jakingai eskuratzea.
- b) Aurretik zeuden aktiboak berrerabiliz gero, Administrazio Publikoak edo erakunde kontratatzaileak jasotako produktua gerora beste administrazio publiko batzuei edo loturiko zuzenbide publikoko erakundeei edo haien mendekoei eskaini ahal izatea, berrerabil dezaten. Gainera, iturburu irekiko produktuetatik abiatuz gero, iturburu irekikotzat aitortu ahalko da etorkizunean garatuko den aplikazioa.